

Emakume langileen eguna duela 4.000 urte

KOPENHAGE (DANIMARKA), 1910. Emakume Sozialisten Nazioarteko II. Topaketan, Alemaniako Alderdi Sozialistako ordezkari Clara Zetkin eta Kathy Dunckerrek “Emakumeen nazioarteko Eguna” edo “Emakume Langileen Eguna” ospatzeko proposamena aurkeztu zuten. 1911ko martxoan, Emakume Langileen Eguna ospatu zen lehenengoz Alemanian, Austrian, Danimarkan eta Suitzan. Ofizialki behintzat, 4.000 urte lehenago, Mesopotamian, emakume langileek, beren eguna ez ezik, aste osoa jai izan baitzuten bitan gutxienez.

Antzinako Sumerren berriki arte berreskuratuko ez zituzten eskubideak zeuzkaten emakumeek. Esaterako, ikasteko eta beren lanaren bidez bizibidea lortzeko aukera zuten. Orotariko lanbideetan aritu zitezkeen eta irabazten zutenaren jabe ziren. Merkataritza kontratuak jasotzen dituzten taulatxo askotan emakumeen sinadurak ageri dira.

Enpresaburu nagusien artean lehen dinastietako erregina eta printzesak nabarmendu ziren. Bulegoak zituzten, eta bertan lan egiten zuten idazlariak emazteen zerbitzura ageri dira dokumentuetan, eta ez senarrenean. Bulego horietatik kudeatzen zituzten negozioak eta senarrek normalean ez zuten parte hartzen, mozkinak partekatzeke ez bazen. Zenbait erregek emaztearen jardura ekonomikoei esker finantzatu ahal izan zituzten kanpainak eta proiektuak. Akkadeko Sargon –lehen errege akadiarra– Tashlultum erreginaren gari negozioari esker aberastu zen eta, lau



IRAKEKO MUSEO NAZIONALA

Sumerko emakume burua, Uruk hiriko arrastoen artean aurkitutako marmolezko pieza, K.a. 3.000 urte inguruan datatua.

erregealdi geroago, Sharkalisharri erregea Tutasharlibish emazteak eraikuntzarako harrien salerosketan irabazitakoaz baliatu zen.

Gortetik kanpo ere hainbat adibide geratu ziren agerietan jasoak. Ureko tenpluko apaiz baten emazte Ashagek garia saltzen zuen; hiri bereko gobernadorearen emazte Ninkhulak, aldiz, larrua, urrea eta lurrinak. Azken horrek Nimkalla erreginarekin nolabaiteko “multinazionala” kudeatzen zuen, haien enpresak hainbat egoitza baitzituen Lagasheko hegoaldeko mugatik hasi eta Mari iparralderaino –egungo Iraketik Turkiaraino–.

Emakume xeheen artean ohikoak ziren gerora mende luzez “maskulinitzat” jo ziren lanbideak, hala nola, zurgintza edo eskulturak zizelkatzea. Tabernari, botikari, lurringile eta masajista gehienak emakumezkoak ziren, lanbide horiek gizonezkoentzat galarazita egon ez arren. Eta Ureko III. dinastiako hiru emakumezko sendagileren izenak iritsi zaizkigu: Kubatum, Zamena eta Ummeda. Taulatan aurkitutako datuen arabera, Ur hirian, II. dinastian, 13.000 emakume langile zeuden eta hurrengo dinastian, aldiz, 7.000 emakume langile zeuden Lagashen.

Gemen-Linlila erregina eta enpresaburua hil zenean haren senar Shulgik (K.a. 2029-1982) zazpi eguneko atsedena agindu zuen erresumako emakume langileentzat eta, dakigunez, Eanisha erregina hiltzean ere aste osoa jai hartu zuten emakumeek. ■

JABETZE ESKOLA - TOLOSA. 2015KO MARTXOA - EKAINEN EGITARAUA

<http://tolosa.eus/index.php/eu/parekidetasuna.html>

TOLOSAKO UDALA

TOLOSALDEA GARATZEN

